

Ziur zentroaren apustuarekin asmatu egin dutela uste du Aizpuruk

Zibersegurtasun industrialeko guneak aukerak ditu Europatik funtsak jasotzeko • Lehen urte honetako ibilbidea «oso positiboa» izan dela dio

Irune Lasa Donostia

«Bere garaietan proiektu hau abian jarri izan ez bagenu, momentu honetan jartzen egongo ginen». Ainhoa Aizpuruk Gipuzkoako Aldundiaren Proiektu Estrategiko-atarako diputatuaren ustez, «oso positiboa» izan da urtea bete duen Ziur zibersegurtasun industrialerako zentroaren ibilbidea, egonkortu egin delako, «sustraiak bota» dituelako, eta lortu duela lurraldeko industriari bere burua aurkeztea «balio handiko bazkide laguntzaile gisa».

«Apustua egin genuen, eta asmatu egin dugu», nabarmendu du Aizpuruk. Baliteke Ziurren traineruak, gainera, olatu handiago hartzea, foru diputatuak azaldu duen moduan, abagune berriaren zentroak badituelako aukerak finantzaketa lortzeko Europako Berreraikuntza eta Sustapertze Funtsetik. «Ziurrek bete-betean betetzen ditu pandemia ondorengo Europa hori ezartzen zaizkion ezaugarriak, Europa berdea, Europa digitala, Europa erresilientea ekarri behar duten ezaugarriak».

Funtsetatik etorria lortuz gero, Aizpuruk azaldu duenez, «Ziurrek jauzi garrantzitsu bat eman go luke». Ballabide horiekin zentroak ekintza gehiago eta azkarrago egingo lituzkeela esplikatu du. Besteak beste, datorren urtearen hasieran zabaltekoa duen laborategiaren helburuak handituko lirarteke, eta unibertsitateekin lanlaketan sakonduko litzateke, «industriari interesatzen zaizkion soslai horien prestakuntzarako». Edonola ere, diputatuak ziurtatu du funtsetik baliabideak lortu ala ez Ziurrek bere bidea egingo duela; «aurrera jarraituko du, gure proiektu estrategikoetako bat delako».

la 300 enpresa

Ateak joan den urteko azaroan zabaldu zituen Ziurrek, eta harekin hartu-emanak izan dituzte lurraldeko industria sektoreko la 200 enpresak, gehientsuenek formakuntza jasotzeko. Beste 70 bat izan dira hartu-eman estuagoa izan dutenak, gehientsuenak makina-eremintaren sektorekoak, AFM klusterra tarteko.

Hortetatik, 35 konpainiak era-


bili dute joan den ekainetik Ziurren zibersegurtasuneko behatokiak eskaintzen duen autodiagnostikoaren zerbitzua. Koldo Peciña Ziurreko zuzendari nagusi berriak laburbildu du zentroaren lehen urteko ibilbidea, zeinetan inbertsioak egin dituzten bai egoitza bera egokitzeko (Donostiako Zuatzu poligonoan), bai haren laborategiko ekipamenduak aktibatuzko, eta bai webguneko korporatiboa hobetzeko.

Agenda bete da dauka Ziurrek datozten asteetarako. Batetik, lehen urte honetan egin diren mehatxu, zibereraso eta jardueri buruzko txostena argitaratuko du, eta urtea amaitu aurretik beste hiru txosten plazaratuko ditu: zibersegurtasunaren funtzioaren gida; mehatxuen txostena; eta zaintza teknologikoaren eta joberen txostena.

Horiez gain, Cyber Deception teknologiarekin erasoak detektatzeko kanpaina jarriko du abian, eta enpresak zibersegurtasunean kalifikatzeko tresna aurreratu bat erabiliz, Ziurrek Gipuzkoako Industria enpresen egoera sakon aztertzeari ekingo dio.

Aldi baterako erregulazioa kendu du Trapagarango MFSk, protesten aurretik

TRAPAGARAN • MFS enpresako zuzendaritzak bertan behera utzi du bere langileak aldi baterako enplegu erregulazioan jartzeko proposamena. ELAK azaldu duenez, enpresa batzordeak mobilizazioak antolatuta ondoren hartu du erabakia zuzendaritzak. Autogintzako enpresa MFS, 120 langile inguru ditu, eta Trapagaranen dago (Bizkaia). Fabrika lan karga nahikoa duela ziurtatu du ELAK.



Kupsa Coating enpresa sutan, atzo, Oionen. ARABAKO SUHITZAILEAK

Langile batek erredura larriak egin ditu Oiongo margo enpresa batean

OION • Sute bat piztu zen atzo 13:00an Kupsa Coating margo enpresan, Oiongo El Puntido industrialdean (Araba). Lehen informazioen arabera, nahasketa kimikoak egiten diren lekuan piztu zen suta, eta han bilduta zegoen materialak hainbat leherketa eragin zituen. Langile nat Logroñoko erietxera eraman zuten —Olondik sei kilometroira dago—, eta handik Gurutzetara (Bizkaia), erredura handiak jasan zituelako eta oso egoera larrian zegoelako. Arratsaldean itzali zuten suta.

-21

CAF-EN EMAITZAK MILIOI EUROAN, IRAILERA ARTE,

Koronabirusaren ondorioz jarduera txikitu izanak eta truke tasetan izandako aldaketek 21 milioi euroren galerak ekarri dizkiote CAFi urteko lehen bederatzita hilabeteetan. Edonola ere, konpainiak pandemiaren eragina mugatzea lortu du: martxora arte %18ko jaitsiera izan zuen fakturazioan, eta %12koa irailera arte. Solarisen ekarpena handitzen ari da.



«Lekuz kanpo daude [enpresen] zorbifikazioari buruzko kezkek, batez ere ikusita orain txerto bat begi bistan dugula»

Christine Lagarde
Europako Banku Zentraleko presidentea

234

ZENBAT ABEE ESKATU ZITUZTEN ASTELEHENEAN, EAE-N

Ostatuak ibxi izanak ABEE aldi baterako enplegu erregulazioak eragingo ditu sektore horretan. Eusko Jauriritzako Lan Sailak 234 ABEE eskaera jaso zituen halakoak eskatzeko lehen egunean, astelehenean. 1.016 langileren kontratuak aldi baterako eteteko eskaerak dira. Tabernetako, jatetxeetako eta janari banaketako langileak dira ia guztiak.



Ainhoa Aizpuruk, Gipuzkoako Proiektu Estrategikostako diputatua, eta Koldo Peciña, Ziurreko zuzendaria. JON URBE / FORU